

Erizaintzako profesional gisa daukagun **konpromisoa** zainketarik onenak ematea da, gainerako talde sanitarioekin lankidetzan estuki jardunez, osasunean emaitzarik onena lortzeko.

Barrualde-Galdakaoko ESIan zinez uste dugu erizaintzako ikerketa eta berrikuntza funtsezko motorra direna egunero eskaintzen dugun arretaren kalitatea hobetzeko.

Nursing Research Challenge nazioarteko ekimenean parte hartzeak gure konpromisoa erakusten du: ezagutza zientifikoan aurrera egiteko konpromisoa, bai eta zainketak beti eskuragarri dagoen ebidentzia zientifiko onenean oinarrituko direla bermatzekoa ere.

Gure unitateetan garatzen diren erizaintzako ikerketa-proiektuek helburu bakarra daukate: **zainketen segurtasuna, kalitatea eta humanizazioa hobetzea**. Hala, pertsonen, familien eta komunitatearen beharrei erantzuteko modu berriak bilatzen dira.

Barrualde-Galdakaoko ESIan garatzen diren Erizaintzako Ikerketa eta Berrikuntza proiektu guztiak batzorde etiko eskudunek berrikusten eta onartzen dituzte.

Uneren batean parte har dezazun eskatzen badizugu edo zure datuak erabiltzeko, **baimen informatua eskatuko dizugu**. Baimen hori askatasun osoz onartu edo ukatu ahal izango duzu, eta izan ditzakezun zalantza guztiak argituko dizkizugu.

Hartzen duzun erabakiak **ez du inolako eraginik izango** jasoko duzun arretan edota zaintzan.

Gure erizainek egiten duten ikerketa-lanarekin, Osakidetzari eta gure ESIari laguntzen diote zainketen berrikuntzaren abanguardian egoten.

Zertarako ikertzen dugu? Bada, aurrera egiteko, hobetzeko, eta kalitate, humanizazio eta segurtasun handieneko zainketak eskaintzeko; hau da, zu hobeto zaintzeko, orain zein etorkizunean.

Nuestro compromiso como profesionales de Enfermería es proporcionar los mejores cuidados, colaborando estrechamente con el resto del equipo sanitario, para alcanzar los mejores resultados en salud.

En la OSI Barrualde- Galdakao creemos firmemente que la investigación y la innovación en enfermería es un motor fundamental para mejorar la calidad de la atención que ofrecemos cada día.

La participación en la iniciativa internacional **Nursing Research Challenge** refleja nuestro compromiso por avanzar en el conocimiento científico y asegurar que los cuidados se basen siempre en la mejor evidencia científica disponible.

Los proyectos de investigación enfermera que se desarrollan en nuestras unidades tienen un único objetivo: **mejorar la seguridad, la calidad y la humanización de los cuidados**. A través de ellos, se buscan nuevas formas de responder a las necesidades de las personas, sus familias y de la comunidad.

Todos los proyectos de Investigación e Innovación de Enfermería que se desarrollan en la OSI Barrualde-Galdakao cuentan con la revisión y aprobación de los comités éticos competentes.

Si en algún momento se requiere su participación o el uso de sus datos, **se le solicitará previamente su consentimiento informado**, que podrá aceptar o rechazar libremente, y se resolverán todas sus dudas.

Su decisión **no afectará en ningún caso** a la atención ni a los cuidados que recibirá.

Con esta labor investigadora, nuestras enfermeras y enfermeros contribuyen a situar a Osakidetza y a nuestra OSI a la vanguardia de la innovación en cuidados.

Investigamos para avanzar, para mejorar, y para ofrecer cuidados con la máxima calidad, humanización y seguridad; para cuidar mejor de usted, hoy y en el futuro.



Katalina Etxeandia Malaxechevarria
Erizaintzako Zuzendaria – Directora de Enfermería